

Oñatiko kampuseko diploma banaketa

2009/05/26

Ostiralean, maiatzaren 22an, Mondragon Unibertsitateak diplomak eman zizkien aurreko urtean unibertsitate horretako Enpresa Zientzien Fakultatean ikasketak egin zituzten 88 ikasleri. Diploma-banaketa, 18:30etan egin zen Oñatiko Santa Ana Auditorioan.

Guztira, 88 ikaslek -58 neskek eta 30 mutilek- jaso zuten beren diploma, Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zeintzien Fakultatean ikasketak egin ostean. Hain zuzen, 2007/08 promozioiko 88 ikasleri entregatu zitzaizkien diplomak: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentziaturakoak, Gestio Informatikako Ingeniaritza Teknikokoak eta Zuzendari Idazkaritzakoak.

Ekitaldi akademikoan zehar, Jose Miguel Ayerzak, Adegiko idazkari nagusiak "Garai modernoetarako liderrak" izenburuko hitzaldia eman zuen. Ekitaldian, Lander Belokik, fakultateko dekanook, Lourdes Idoiaga, Oñatiko alkatesak, Begoña Ugarte, zuzendari akademikoak, Dorleta Agiriano, Zuzendari Idazkaritzako koordinatzaileak eta Ion Ander Irureta, Gestio Informatikako Ingeniaritza Teknikoko koordinatzaileak hartu zuten parte eta losu Zabala, Mondragon Unibertsitateko errektoreak, eman zion amaiera horri.

